

Beñat Sarasola

♦ IDAZLEA



ZALDI ERO

Autobusa

EZ GARA mordo bat, onartu beharra dugu. Baina salbuespen ohoragarri gutxi batzuk landa –oro emakumezkoak, bidenabar– Lubaki bandaren belaunaldia- ren ondorengo idazle ustekook –1980etan jaiotakook edo–, alferkeriaz gabiltza enpo. Euskal literaturaren Autobusa da gurea, kontroletik at geratzeko arriskuan beti. Errepidea aldeko dugula azeleratzen duguneta- koak gara. Pentsa, *Sautrelan* erreportajea egin zuten euskal literaturaren azken boladako balizko sikutasu- naren gainean, Autobusa jopuntuan. Auto- busa, *also known as* Barrebusa.

Kexan hasteko goizegi dela iru- ditzten bazaizu, irakurle, egizu kontu badirela urte batzuk dagoe- neko gutariko zaharrenei Gazte Txartela kendu zietela, eta gainera, dakizunez, euskal literaturan, 25 urtetik gorako edonor da automati- koki beterano. Errazena litzateke literatur sistemaren inguruan kexa- ri ematea; Jon Kortazar, Mari Jose Olaziregi, Bernar- do Atxaga eta are CIAren konplota sala- tzea. Euskadi saririk jaso ez dugula gogora- raztea –azken batean, Tropelekoei ongi atera zitzaien jokaldia–, ezta Espai- niako Sari Nazionalik ere –eman diezagutela lehenik; gero egingo diogu, nola ez, uko–. Errazena litzate- ke, bada, hori guztia, baina ez gaitezen engaina, Miracruzeko gainean ere deskolgatuta geratzaren ardura gurea baino ez da.


Gurea baita bi poema liburu eskas argitaratuta zerbait egin dugula uste dugunon belaunaldia. Blog batean erantzun bat utzi eta luze gabe deituko dizute komunikabideren batetik ea zutabe bat idazte- ko prest zauden galdezka, edo okerragoa dena, ea kri- tikagintzan hasi nahi duzun. Angel Errok, zeina 1978koa izanagatik derrepentean belaunaldiratu dugun hari baimenik eskatu gabe, esan du berriki poeten artean halako

lehia ezkutu bat nagusitu dela ea norik uzten duen liburu batetik hurrengora tarterik handiena. Hori, Autobusean, praktika orokortua da. Erreguka ibiltzea da, ezbairik gabe, Autobusaren sedukzio forma behi- nena.

Baditugu, hala, pare bat txikikeriarekin beren burua idazletzat jotzen dutenak, baina bada beste kasta oraindik erradikalagorik ere. Horiexek dira Aritz Galarraga eta Gorka Bereziartua lako obrarik gabeko idazleak. Abangoardietako ideal zaharra berreskuratzen duten artistak dira, nonbait; obraren objektu izaera mespretxatuz, artea bizitzara, egunero- ko praktikara –ezerezera alegia– eramatearen premia dute aldarrikatzen. Ismoak aspaldi joan zirelarik, historiako azkenekoa besarka- tzen dute: gantzarainismoa. Ezagun da, oster, abangoardia izan dela histori- koki alferkeriaren alibi sotile- netako bat.

Grabeena, halere, zera da, izurritea are idazle gaztea- goengana ere iritsi dela, Peter Ostolazaren *Gure belaunaldia*z testua testigu, non halakoak irakurtzen ahal diren: “Pare bat esaldi eki- bokatu papereratzea baino isiltasunaren perfek- zioa nahiago dugu aukeran, oi guk, kriti- katuko, gaitzetsiko, akaso egurtuko gaituz- ten beldur garenok.”

Halaxe gabiltza. Ez dago zalantzarik, euskal literatu- raren etorkizuna alfer hauen guztien eskuetan uztea temeritate hutsa baizik ez da. Arduragabekeria demasekoa. Ez etorri gero lantuka bertsoariak tostada konfitura eta guzti jan dizuetela eta. Noiz utziko dituzue nagikeriak, aitzakiak? Noiz hasiko zarete behingoz taxuzko zerbait idazten (esan nahi baita, nobelatza bat, ipuin bilduma gotor bat?). Noiz utziko duzue amaren altzoa? Noiz ipiniko zarete lanean? Noiz utziko diozue twi- tatzeari? ■



Antton Olariaga

